

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako Donemiliagako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Alkateak otsailaren 25eko 2021/79ren bidez eskuordetuta, bigarren alkateordearen dekretu bidez, xedapen-zatiak hitzez hitz hau dioen ebazpena onetsi zen:

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera, Donemiliagako Udaleko idazkari-kontuhartzaile azpieskalari dagokion lanpostu hori estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioentzat gordeta dago.

Lanpostu hori hutsik geratuko da laster, titularrak erretiroa hartuko baitu 2021eko apirilaren 1etik aurrera.

Aurreikusi da idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko dela estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko 2020ko lehiaketa bateratua ebatzi ondoren.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, honako hau ebazten dut:

Lehenengoa. Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera bost egun balioduneko epea ematea, Donemiliagako Udaleko idazkari-kontuhartzaile plaza betetze aldera eskaerak aurkezteko. Lanpostu hori estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutako legezko zernahi eratan bete ahal izango da.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioako funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagai moduan: parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidaliko da: asanmillan.general@ayto.araba.eus.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarekin. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten den lehen osoko bilkuran.

Erdoña, 2021eko otsailaren 25a

Bigarren alkateordea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO